



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Koldar hutsa zara**

Egilea / Autor: **Aritz Gorrotxategi**

Saila / Colección: Narratiba, 89

ISBN / EAN: 978-84-9746-996-8

Salneurria / Precio: 18,50 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orrri kopurua / Nº páginas: 312

Formatua / Formato: 15 x 22 cm

#### Egilea / El autor

**Aritz Gorrotxategi** (Donostia, Gros auzoa, 1975). Zuzenbidean lizentziaduna. Egun, gidoigintzatik eta testugintzatik bizi da. Literatur eta zinema gaiak landu ditu bereziki.

2000. urtean Irun Hiria saria eskuratu zuen bere lehen eleberriarekin, *Kafkaren labankada*. Horrez gain, bereak dira *Taxi bat Hamletentzat* (2002) eta *Zaldi hustuak* (2007) poema-liburuak, *Egurra Pinotxori* (2002) narrazio bilduma, *Galtzontziloak autobusean zintzilik* (2002) sasi-kronika, *Kearen truke* (2005) eta *Axola ez duenean* (2009) eleberriak.

Berriki, Itziar Mínguez-en *Pura coincidencia-Kointzidentzia hutsa* (2010) poema-liburua itzuli du euskarara.

#### Lana / La obra

Peruk ez du artaldearen barruan bizi nahi. Ez du indarrean dauden ideia eta *lege zaharren* jarraitzaile izan nahi, ez da ezeren apostolu izateko jai. Gauzak kolokan jartzea atsegin du. *Krapulan* elkartzen da bere belaunaldiko kide batzuekin. Harrikaden, manifen eta lazo urdinen garaia da, eskuin-kume faxistena eta *pantxoatapeiotarrena*. Nirekin edo nire aurka. Peruk, ordea, bere bidea aurkitu nahi du ortodoxiatik, mito zaharkituetatik eta ergelkeriatik kanpo. Idazle izan nahi du. Nietzsche du bidelagun, baina arrunkeriatik ateratzea eta bide propioa egitea ez da inoiz erraza izan.

Bitxiki, Peruren aitonak naziengandik ihes egin zuen judutar bati lagundu zion. Batzuetan, oso mehea da heroiaren eta koldarraren artean dagoen marra. Gainera, Peru haragikoia da, fetitxista, zirikatzailea, apur bat *houellebecquiarra*...

*Koldar hutsa zara* istorio indibidual eta kolektibo baten fikziozko kronika da. Belaunaldi batena, diktaduraren eta trantsizioaren artean jaiotako belaunaldiarena. Fanatismoaren eta koldarkeriaren artean ahaztutako garai bat. Gure kontraesan eta mixeria txikien kronika. Zaharrak berri.

ISBN: 978-84-9746-996-8



9 788497 469968